

Txiribitu, hasteko prest

Etzi izango du
lehen bilera ▶ 6



Gripearen aurkako kanpaina martxan da

EPEA ▶ Eskualdeko herri guztietan har daiteke txertoa urriaren amaiera bitarte

NORI? ▶ 65 urtetik gorakoei eta diabetesa eta gaixotasun kronikoak dituztenei dago zuzenduta ▶ 2



Erizaina gripearen txertoa jartzen emakume bati Tolosan. MADDI SOROA



IMANOL GARCIA

Giro eta eguraldi ona San Migel egunean

ALDABA-IRURA ▶ Aldaban amaitu dira jaiak; Iruran garbitzaile eta lorezaina omendu dute eta gaur 'play-back' eta Izotz izango da ▶ 4

LEITZA ▶


Irusu etxeak
jabego
partikularra
izango du

Udalak enkantean
atera du ▶ 7

VILLABONA ▶

Donostiako eskusoinu
orkestrak hasiko ditu
kultur ekitaldiak

Bihar ariko dira Gurean Mikel
Bikondoaren zuzendaritzapean ▶ 5



HITZA

IKASI ARABIERA
TOLOSAN

Irakasle arabiarra
Maila guztiak
Goiz, arratsalde
eta larunbatetan
686 971 962

OSASUNA ▶

Abian da gripearen aurkako kanpaina

Urriaren 31 arte gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera dago bi eskualdeetako herri guztietan



Egun hauetan gripearen aurkako txertoa ari da hartzen jende asko Tolosako anbulatorioan. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Aurtengoan ere, gripearen aurkako kanpaina jarri du abian Osakidetzak, *Gripe guztien gainetik, jarri txertoa* lelopean. Irailaren 20an eman zitzaion hasiera kanpainari eta urriaren 31 arte egongo da zabalik gripearen aurkako txertoa jartzeko aukera.

Aipatu kanpaina, 65 urtetik gorakoentzat, diabetesa duten gaixoentzat eta gaixo kronikoentzat—biriketakoak, bihotzekoak, gibeletakoak eta giltzurrunekoak— zuzenduta dago batez ere. Hala ere, aipaturiko taldeetan egon ez arren, eta beharrezkoa dela uste izanez gero —sendagileak hala esan duelako—, gripearen aurkako

txertoa jartzeko aukera er badago.

Gripeak, gaixotasun infektziosoa izanik, edonor harrapa dezake. Normalean ez da larria, baina arazoak eragin ditzake aipaturiko taldeetan.

Urtetik urtera, gripearen eragina aldakorra izaten da; gogor jotzen du urte batzuetan, ez hainbeste beste batzuetan. Txertoan, gripearen hildako birusak sartzen dituzte, horrela, gorputzak birus horren aurrean defentsak sortzen ditu eta helburu nagusia betetzen da, gripear aurre egitea, alegia. Txertoak eraginkortasun handia du, baina ez da erabatekoa; ondorioak hain larriak ez izaten laguntzen duela alegia. Hala ere, komenigarria da

urtero jasotzea gripearen aurkako txertoa.

Zer egin txertoa jartzeko?

Oso erraza da. Norberaren osasun zentrorra edota anbulatorioa joan eta hantxe bertan jarriko dizute. 65 urtetik gorako bazara, gogoratu osasun txartel indibiduala edo NAN eraman behar duzula. Aldiz, lehen aipaturiko arrisku-talderen batakoa bazara, ohiko medikuarengana joan behar duzu bolantea hartzera. Bertara hurbildu ezin duenak eta etxean jaso nahi badu, ordean, badu txertoa jasotzeko aukera. Txanda hartzerakoan erizaina etxean jaso nahi duela esatea besterik ez du egin behar.

▶ NORA ETA NOIZ JOAN?

Abaltzisketa ▶ 943 65 3212 telefono zenbakira deitu eta txertoa hartzeko txanda hartu behar da.

Aduna, Villabona, Zizurkil ▶ Aste hau amaitu arte, 9:30etik 18:30era ez da txandarik hartu behar. Hurrengo astetik aurrera txanda hartu behar da Villabonako anbulatorioan 943 00 69 70 telefonoan.

Albiztur ▶ 943 65 32 12 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da.

Aldaba ▶ Txanda hartu behar da 943 65 32 12 telefono zenbakian.

Alegia ▶ 943 65 32 12 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da.

Alkiza ▶ Urriaren 4ean 12:30etik 13:30ak arte txertoa jasotzeko aukera dago herrian bertan. Bestela, Anoetako 943 65 23 39 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da.

Altzo ▶ 943.65.32.12 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da.

Amasa ▶ Aste hau amaitu arte Villabonako anbulatorioan jarri daiteke txertoa 09:30etik 18:30era txandarik hartu gabe. Hurrengo astetik aurrera txanda hartu behar da Villabonako anbulatorioan 943 00 69 70 telefonoan.

Amezketza ▶ 943 65 32 12 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da.

Anoeta ▶ 943 65 23 29 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da 08:00etatik 15:00etara.

Asteasu ▶ 11:00etatik 12:30era jaso daiteke txertoa.

Bedaio ▶ Txanda hartu. behar da 943 65 32 12 telefono zenbakian.

Beizama ▶ 943 65 32 12 zenbakian txanda hartu beharra dago.

Belauntza ▶ Urriaren 21ean 09:00etatik 10:30era txertoa hartzeko aukera dago udaletxean, bestela Ibarra anbulategian txanda hartu 943 67 24 11 zenbakian.

Berastegi ▶ 943 67 24 11 zenbakira deitu eta txanda hartu behar da Ibarra anbulategian.

Berrobi ▶ Asteazkenero jaso daiteke txertoa 08:45etik 11:00etara herriko udaletxean.

Bidegoian ▶ 943 65 32 12

zenbakian txanda hartu beharra dago.

Elduain ▶ Txanda hartu behar da 943 67 24 11 telefono zenbakian.

Gatzelu ▶ 943 67 24 11 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu bertan.

Hernalde ▶ Urriaren 7an 12:30ean txertoa jasotzeko aukera egongo da herrian bertan. Beste egun batean jaso nahi izanez gero, Anoetako anbulategian txanda hartu behar da 943 65 23 39 telefono zenbakian.

Ibarra ▶ 943 67 24 11 zenbakian txanda hartu beharra dago.

Ikaztegieta ▶ 943 65 32 12 zenbakian txanda hartu beharra dago.

Irura ▶ Txertoa jasotzeko, txanda hartu beharra dago 943 65 23 39 telefono zenbakian. Ordutegia, 8:00etatik 12:00etara.

Larraul ▶ 11:00etatik 12:30era jaso daiteke txertoa Asteasun.

Leaburu ▶ Urriaren 7an eta 28an txertoan hartzeko aukera dago 09:30etik 10:30era.

Bestela, 943 67 24 11 zenbakian txanda hartu **Leitza eta Areso** ▶ 948 51 08 00 zenbakian txanda hartu behar da. Gripearen aurkako kanpaina urriaren 15ean amaituko da Nafarroa osoan.

Lizartza ▶ 943 67 24 11 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da bertan.

Orendain ▶ 943 65 32 12 zenbakian txanda hartu beharra dago.

Orexa ▶ 943 67 24 11 telefono zenbakira deitu eta txanda hartu behar da bertan.

Tolosa ▶ Tolosako anbulatorioak bi ordutegi ezberdin eskaintzen ditu txertoa jarri ahal izateko. Batetik, 09:30etik 12:30era edo bestela, 13:00etatik 14:00etara. Bi aukeretako edozein delarik ere, txanda hartu beharra dago 943 00 68 00 telefonoan.

Txarama ▶ Urriaren 5ean eta 26an txertoa jasotzeko aukera dago. Bestela 943 67 24 11 zenbakian txanda hartu behar da 943 65 32 12.

Ugarte ▶ 943 65 32 12 zenbakian txanda hartu beharra dago.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

DEIALDIA ▶

Tolosa Bizirik herri ekimenaren batzar irekia, gaur

Tolosa Bizirik herri ekimenak batzarrera deitu du gaurko 20:00etan izango da, udaletxeko batzar aretoan. Besteak beste, egoera politikoa aztertzeaz gain, Tolosa Bizirik-eko udal ordezkariak Udalean parte hartu ahal izateko eman dituzten urratsak eta urrats horien emaitzak azalduko dituzte bileran. «Era berean, taldeak bizi duen bazterketa egoerari aurre nola egin eta Tolosan nola eragin aztertuko dugu», diote ordezkariak. Antolatzailerak «gaiaren garrantzia azpimarratu» eta batzarrean «parte hartzera animatu» dituzte herritarrek.

FUTBOLA ▶

5-0 irabazi du Tolosak Urnietaren aurka

Tolosako nesken taldeak 5-0 irabazi zioten Urnietari larunbatean, Alegiako futbol zelaietan. Josune Corderok sartu zituen bi gol, Ainitze Zabalak beste bi, eta bat Ixiar Atxurak. Dena den, emaitzak adierazten duen usteko erraztasuna ez zela benetako izan azaldu dute ordezkariak. Garaipen honek indar handia emango die Tolosakoei, eta haien helburua, igoera fasea, lortu ahal izateko beste pauso garrantzitsua dela diote.

DEIALDIA ▶

Manifestaziora joateko gonbita egin du Elkarri-

Elkarri-ren Tolosako talearak etzi Donostian egingo den manifestazioan parte hartzeko gonbita egin die herritar guztiei. *Konpromiso handiagoa giza eskubideekin* lelopean, 17:30ean Haizeen Orrazitik abiatuko da manifestazio isila, eta Boulevardrean amaituko da. Elkarri-koen hitzetan, «mobilizazioak helburu argia eta zehatza dauka: elkarriketaren aldeko existentzia eta giza eskubideen errespetuaren lehentasuna agerian jartzea, egungo aukera garaia alferrik gal ez dadin. Itxaropen garai honek guztioi konpromiso handiago eskatzen digu». Informazio gehiago nahi duenak 902 42 10 10ra dei dezake.

MUSIKA ▶

Musika zaparrada itzuli da

Udako atsedendialdiaren ondoren, bihar ekingo diote denboraldiari Bonberenean; Obligaciones eta Captain Nemo taldeek eskainiko dute kontzertua 22:30ean



Urriar eta azaroan astebururo izango da kontzerturik Bonberenean; argazkian, iazko emanaldi bat. HITZA

LEIRE MONTES

Udako hilabetetan atsedendialdiak hartu dute Bonbereneak, baina iraillean indarberrituta daudela eta era guztietako ekitaldiak antolatzeko asmoz jarraitzen dutela utzi dute argi berrito. Oraingo, kontzertuen agendaren berri eman dute. Era guztietako musika entzuteko aukera eskainiko dute beste behin etxekoek, ostiral eta larunbatean, 22:30etik aurrera. Urriar eta azaroan, beraz, badago zer entzunik.

Bihar 22:30ean, hain zuzen ere, zabalduko dute denboraldia Bonberenean, Obligaciones eta Captain Nemo taldeen emanaldiekin.

OBLIGACIONES

Gasteizko taldea da Obligaciones, haiek dioten moduan, «makarra eta punk-rockeroa».

Ramones taldea miresten dute, eta «benetako rock doinuak» dituzte inspirazio iturri. Mötörhead eta Stooges taldeak ezinbesteko erreferente dira beren musika ulertzeko.

Rapido y sucio izeneko diskoa dute kalean. 11 kantu ditu bildumak, eta era guztietako gaiak jorratzen ditu. *Polvo de accion*, *Escenas de terror*, *Lagrimas*, *Rehenes* y *colchones* eta *Ace of espades* dira, besteak beste, horietako zenbait.

Hauxe irakur daiteke haiei buruz taldearen webgunean: «Raw power, sexoa, droga gogorak... Horiek dira bandaren oinarriak. Rock-punk-aren benetako makarrak dira. Material sukoi ugari eskaintzen dute beren diskoan, eta *Ace of spades*-en bertso indartsua ere bai. Bizioa. Gitarra berrunba, riff-ak... Zer gehiago nahi duzu?».

CAPTAIN NEMO

Donostia eta Lazkao artean osatutako taldea da Captain Nemo. Kideek badute eskarmentua aurretik; izan ere, beste hainbat taldetan aritutakoak dira: Eskoria-tza, Karkaxa, Heriotza eta First fucking, esaterako. *Punk-rock-a eta hardcore-a* lantzen dute.

Beren lehenbiziko lana kaleratu berritan iritsiko da taldea Bonberenea etxera. Izan ere, *Korrontearen kontra*, *urpekari bat* diskoa eta bideoak gaur bertan plazaratuko dute.

AGENDA ▶

URRIA

- 1, ostirala, 22:30.
 - ▶ Obligaciones.
 - ▶ Captain Nemo.
- 8, ostirala, 22:30.
 - ▶ Mairren.
 - ▶ Jone.
- 9, larunbata, 22:30.
 - ▶ Inadaptats.
 - ▶ Izaera.
- 15, ostirala, 22:30.
 - ▶ Gatillazo (Evaristo).
- 22, ostirala, 22:30.
 - ▶ Kauta.
 - ▶ Sei urte.
- 23, larunbata, 22:30.
 - ▶ Skate festa.
 - ▶ Afrika.
 - ▶ Bad Sound System.
- 29, ostirala, 22:30.
 - ▶ Gor gaua.

AZAROA

- 5, ostirala, 22:30.
 - ▶ Petti.
 - ▶ Amodio.
- 6, larunbata, 22:30.
 - ▶ Sagarroi.
- 12, ostirala, 22:30.
 - ▶ Señor No.
 - ▶ Nuevo Catecismo Catolico.
- 13, larunbata, 22:30.
 - ▶ Aragoiko jaiak.
- 19, ostirala, 22:30.
 - ▶ Muletrain.
 - ▶ Discipulos de Dionisos.
- 20, larunbata, 22:30.
 - ▶ Nisei.
 - ▶ Delorean.
- 26, ostirala, 22:30.
 - ▶ Martxaundi gaua.

TOLOSAKO UDALA

ENKANTEA

Gobernu Batzordeak, 2004ko irailaren 20an, Tolosako Bidegorri proiektuko obrak kontratatzeko Klausula administratiboen agiria onartu zuen.

1. Helburua: Tolosako Bidegorri proiektuko obrak kontratazioa.
2. Lantzearen zenbatekoa: 805.846,57 € (BEZa barne)
3. Lanak egiteko epea: 4 hilabete
4. Espedientea ikusteko: Kopibat (Lizardi plaza 2), telefonoa 943 65 51 66.
5. Behin-behineko fidantza: 16.500,00 €
6. Behin betiko fidantza: 33.000,00 €
7. Enpresen sailkapena:

TALDEA	AZPI TALDEA	MAILA
A	2	A
B	4	D
G	5	D
K	6	C
I	6	B
J	4	B

8. Eskaintzak egiteko epea eta tokia: Tolosako Udaleko Sarrera Erregistroan (Plaza Zaharra, 6 B) 2004ko urria ren 25 egun 13:00ak arte.

Tolosan, 2004ko irailaren 29an
ALKATEA

OSKORRI

DESERTORE

Urriak
1
ostirala
22:30

**leidor
tolosa**

TOLOSAKO UDALA

ALDABA-IRURA ▶ SAN MIGEL JAIK

Giro eta eguraldi ona, egun nagusian

Aldaban atzo amaitu ziren jaiak; Iruran igandera arte luzatuko dira

O. ESKITXABEL/I. GARCIA

San Migel jaiak giro epelean igaro zituzten aldatarrek eta irurarrek. Eguraldi onak lagunduta, martxa onean joan zen bi herrietako jaien zaindariaren egun handia.

Iruran, ohi denez, udalbatza zaindariaren omenezko meza nagusian egon zen. Ondoren, eta hamaiketakoa hartu aurretik, herriko dantzari gazteenek dantza saioa eskaini zien plazara hurbildu ziren herritarrei.

Egun nagusia izaki, Udalak herritar bat omentzeko parada hartu zuen eta aurten Jesus Mari Mendizabal aukeratu dute, herriari, garbitzaile eta lorezain lanean, hogeita bost urtetan emandako zerbitzua-rengatik. Oroigarria eta lore sorta oparitu ondoren, bertsoak abestu zizkioten. «Ez nuen espero omenaldi hau jasotzea eta poza handia eman dit», aitortu du hunkiturik Mendizabal berak.

Arratsaldean, inguruko herrien dantzarien emanaldia izan zen. Irurako, Anoetako, Villabonako, Zizurkilgo eta Ibarako gaztetxoek bere abilezia erakusteko aukera izan zuten. Eta eguna amaitzeko, Karidadeko Benta taldearen kontzertua. «Ezin hobek izaten ari dira», adierazi du Marimi Ugal-

IRURAKO JAIK ▶

BIHAR

19:00. Kalejira buruhandi eta erraldoiekin San Migel plazatik aterata.

19:30. Txistor-jatea Share Elkartearen aurrean.

22:30. Play-back jaialdia pilotalekuan.

24:15. Izotz taldearekin dantzaldia San Migel plazan.

de alkateak jaietara buruz galde-tererakoan. Igandera bitarte luzatuko da jaietako egitaraua.

Jaietara agurra Aldaban

Atzoko ekitaldiekin hurrengo urtera arte agurtu zituzten jaiak Aldaban; goizean, meza nagusia izan zen. Ondoren, hamaiketakoa egin zuten herritarrek; jende ugari gerturatu zen bertara. Aste eguna zen atzokoa eta jende asko lanean izan zen goizean; hori dela-eta afarian jende gehiago bildu zen. Elizondo jatetxean egin zuten afaria; auzoan eta auzotik kanpo bizi diren aldatarrek elkar ikusteko aitzakian elkartu ziren mahai inguruan. Ainara eta Miren trikitilarien erromeriako doinuekin amaitu ziren San Migel jaiak.



Irura. Irurako txikienek plazara inguratuz zirenei eskainitako emanaldiaren une bat. I. GARCIA



Omenaldia. Jesus Mari Mendizabal, oroigarria eskuetan, berari zuzendutako bertsoak entzuten. I. GARCIA

INGELES

JAIK

HASIERA
URRIAK 4 ASTELEHENA

AZKEN
AZKENEKO PLAZAK !!

INFORMAZIOA: Telf. 943-652372 (15:30etik - 19:30era)
P.Gorosabel 2 1º (Trianguloan) **TOLOSA**

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak,
argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

BIDEGOIAN ▶

Internet KZgunea eta Nagusiweb ikastaroak

Urrirako bi ikastaro antolatu dituzte KZgunean: Internet KZgunea eta Nagusiweb de-ritzona. Internet KZgune-ko ikastaroak urriaren 4tik 19ra (11:00etatik 13:00etara) eta urriaren 13tik 16ra (09:00-etatik 11:00etara) izango dira. Nagusiweb ikastaroak, urriaren 4tik 9ra (09:00etatik 11:00etara) eta urriaren 25-etik 29ra (11:00etatik 13:00-etara). Izena emateko KZgune-bera (943 62 11 97) deitu dezakete ikastaroetan interesatuek.

IKAZTEGIETA ▶

Ostatu taberna ustiatzeko deialdia zabalik

Ikaztegieta Udalaren jabe-tzakoa den Ostatu taberna-jatetxearen ustiaketa eskubi-dea esleitzeko lehiaketa deialdia Gipuzkoako Aldiz-kari Ofizialean argitaratu de-nez, irekita aurkitzen dela ja-kinarazi du Udalak; eskae-rak aurkezteko epea zabalik dago, beraz. Baldintza ple-guak udaletxean eskuratu ditzakete interesatuek. Eska-erak udaletxean aurkeztu be-har dira; eta horretarako az-ken eguna urriaren 18a izan-goa da.

ANOETA ▶



Anoetarrok Auzolanean plataformakoak, kartelak eskuan. HITZA

Protesta, ezohiko udalbatzarrean

Protesta ekintza burutu zuten Anoetarrok Auzolanean herri pla-taformako kideek pasa den astelehenean, irailaren 27an, egin zen ez ohiko udalbatzarrean. Plataformako hainbat kide udal-batzar aretora bertaratu ziren anoetarren borondatea errespetatze-ko eskatzen zuten kartelak agirian zituztela. Alkateari, Fidel Azpirozi, «Anoetarrok Auzolanean plataformako zinegotzien karguak eskuratzeko aukerak lantzeko eman beharreko lehen-engo pausoa beraien alderdiko zinegotzi lapurren dimisioa» dela azaldu zion plataformako ordezkariak.

BIDEGOIAN ▶

Eskulan tailerra asteartetan izango da

Martxan aurkitzen da Bide-goiango eskulan tailerra; au-rreko urtetan astean bitan biltzen baziren ere, aurtan, astean behin izango da taile-rra: asteartetan. 14:30etik 17:00etara balioanitzeko gel-an bilduko dira teknika des-berdinak lantzeko. Aurtan, besteak beste, bisuteria tai-lerria emango dute; pitxiak egiten ikasiko dute.

AMEZKETA ▶

Kilometrotara joateko autobusa antolatu dute

Igandean, urriaren 2an, Kilo-metroak izango da Zarautzen eta Orion. Bertara joateko autobusa antolatu du Amez-ketako Gazte Taldeak. Izena herriko tabernetan jarri di-tuzten orrietan eman deza-kete interesatuek. Kilometro-etara egun pasa joateko au-tobusa 09:00etan abiatuko da Amezketako herriko pla-zatik.

VILLABONA ▶ MUSIKA

Eskusoinuen orkestra, urriko kultur ekitaldeei hasiera emateko

Mikel Bikondoak zuzendutako Donostiako Eskusoinuen Orkestra Sinfonikoaren emanaldia bihar gauean Gurean

IMANOL GARCIA

Bihartik aurrera eta urria guz-tian zehar, ostiralero kultur eki-taldiak izango dira Gurea areo-toan. Donostiako Eskusoinuen Orkestra Sinfonikoaren kontz-ertuak irekiko du datorren hilabeteko kultur zikloa. Hu-rrengo ostiraletan umore saioa eta bi antzezlan izango dira: *Rechaza imitaciones* (Mikel Pa-gadi, Harkaitz Zendoia eta Jon Iraolaren eskutik), *7 gezur txiki* (Ramon Agirre eta Joxe Senpe-renarekin), eta Markelife tal-dearen *Punto rabo* antzezlan-a. Saio guztiak 22:30ean hasiko dira.

Donostiako Eskusoinuen Or-kestra Sinfonikoa 1970. urtean sortu zuen egungo zuzendaria den Mikel Bikondoak; orduz geroztik arrakasta handia lortu dute. Hasieratik, orkestraren helburua esperientzia pedago-gikoa izatea da, eskusoinujole-aren formakuntzaren osagarri. Izan ere, hogeitaz osatuta dago —hogeita hiru urtekoa da bataz besteko adina— tartean



Donostiako Eskusoinuen Orkestra Sinfonikoa. HITZA

sari nazionalak eta nazioarte-koak irabazitakoak. Orkestran aritutako eskusoinujole ugari musikari lotuta jarraitzen dute, bakarlari eta irakasle moduan.

Hamar pieza

Orkestraren erreperitorioa lau-rehun obra baino gehiagokoa da eta biharko kontzertuan ho-rietatik hamar eskainiko dituz-te: *Suite gotica*, *Aurrezku* —Bi-kondoa zuzendariak berak

konposatu—, *Danza hungara n° 6*, *Ara nun diran*, *Danza hun-gara n° 5*, *Preludio Opus 31*, *Adios Nonino*, *Obertura zinga-ra*, *Andre Madalen* eta *Heitere suite*.

Sari ugari lortu ditu Donos-tiako Eskusoinuen Orkestra Sinfonikoa, horien artean nar-barmentzekoa da 1984. urtean Ingalaterran izandako esku-soinuen orkestren Munduko Kopan lortutako lehenengo sa-ria.

IBARRALDEA ▶

Ikastaro ugari antolatu dira ikasturte berrian

Uli mankomunitateak ikastaro ugari antolatu ditu. Leaburun euskal dantza izango da umeentzat larunbat goizetan eta gimnastika astelehen eta ostegunetan. Orexan eskulak egingo dira astelehen eta ostegunetan eta Belauntzan, berriz, asteartetan. Ikastaro hauek urrian hasiko dira. Gainera, datorren hila-betetik aurrera ikastaro gehiago antolatzeko asmoa dute. Edozein ikastarotan parte hartzeko edo informazio gehiagorako deitu Uli mankomunitatera: 943 68 22 28.

IBARRA ▶

Gaur ohiko zinekluba izango da Gaztetxean

Ostegunero bezala, 21:45ean filma izango da gaur ikusgai Ibarako Gaztetxean. Gaurkoan *Imagining Argentina* pelikula emango dute.

IBARRA ▶

Kilometroetarako autobusa Ibaratik

Urriaren 3an ospatuko da Gipuzkoako ikastolen jaia Orrio eta Zarautzen, eta Ibaratik ateratzeko autobusak antolatu dituzte. Egun horretan goizean atera eta gau aldean itzuliko da berriz ere Ibarra. Autobus hauek joateko izena eman daiteke Ibarako Zubiaurre tabernan eta Tolosako Denak tabernan.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Ikasturte berriarekin hasiko da Txiribitu aisialdi taldea

Larunbat honetan, udako kanpamentuko argazkiak ikusiko dituzte eta jokoak eta askaria izango dituzte hasteko

IÑIGO TERRADILLOS

Udako oporraldia pasa eta gero, larunbat honetan, urriaren 2an, hasiko da Ibarako Txiribitu aisialdi taldea bere ohiko jardunaldiekin. Arratsaldeko lauretan izango da lehenbiziko hitzordua Ibarako Parrokiko lokaletan.

Lehenengo bilera honetan, udan egindako kanpamentuko argazkiak ikusiko dituzte taldeko gaztetxoek, baina jolasteko aukera ere izango da, hainbat joko prestatu baitituzte Txiribitu taldeko begiraleek. Indarberitzeo, berriz, askariaz gozatuko dute denek.

Hainbat irteera

Udako antolatzen dute irteera egun batzuk elkarrekin igarotzeko. Uda honetan, uztaillean Burgos (Espainia) aldean egon dira hamabost egunez aisialdi taldekoak. Esperientzia polita izaten dela diote begiraleek eta txikiak primeran pasatzen dutela.

Baina udan ezezik irteera gehiago ere antolatzen dituzte urtean zehar. Asteburu batzuetan Ibaratik kanpora igarotzen dituzte egunak; esaterako, abenduan egun dezente pasako dituzte etetik kanpo.

Honetaz gain asko izaten dira egun beterako egiten di-



Burgosen hamabost egun igaro zituzten Txiribitukoek. I. TERRADILLOS

tuzten irteerak mendira joateko edo bestelako jardunaldi-erako. Urtean egiten den jardueraren garrantzitsuenetako bat izaten da Inauterietako dantza saioarena eta hasi baino aste batzuk lehenago entseguak egiten ohi dituzte larunbatetan.

Izen-ematea

Ibarakoak izaten dira batik bat talde hau osatzen duten gaztetxoak, baina inguruko herrietakoak ere badira. Urtero 40 gazte inguruk ematen du izena, eta hauek gero adinarekin arabera (LH 4. mailatik DBH 3. mailara) hiru taldetan banatzen dira.

Bestalde, Txiribitu taldea berderatzi begiralek osatzen dute; hauek 10-16 urteko gaztetxoentzat arduratzeaz gain jarduerak antolatzen dituzte.

Larunbatean behin egiten dituzte bilerak Parrokiko lokaletan eta prestatzen dituzten ekitaldiekin ederki pasatzen dute gazteek. Eta ondo pasatzeaz gain jende berria ezagutu eta lagunak egiteko helburua izaten dute.

Oraindik izena-emateko aukera izango du animatzen den edonork larunbat honetan ikasturte berriko lehen bileran, Txiribituen lokaletan edo 686 04 73 24 telefono zenbakira deituta.

GUTUN@K ▶



Uztak EAJ-Eari

Uztako zinegotziok beste behin ere salatu behar dugu, EAJ-Eari publikoki nahiz zuzenengan egindako enplazamentuen aurrean aitzakia merkeak besterik ez ditugula jaso. Oraindik gurekin bildu eta egoera antidemokratiko honi irtenbide bat bilatzeko asmorik ez dute azaldu.

Jakin badakigu, legealdi honetan, Ibarren etorkizuna markatuko duten zenbait erabaki hartuko direla, arau subsidiarioaren aldaketa kasu.

Horrela, arau berrien bidez Ibar non, zenbat eta zein motatako etxeak eraikiko diren erabakiko da, 5.000 edo 7.000 biztanleko herri bat izango den, biberoen etorkizuna, aisialdirako zein gune izango dituen, zein azpiegitura mota (haur eskola, aparkalekuak, kiroldegi, jolas toki, zerbitzuak...) behar dituen eta abar.

Hauxe izan da EAJ-EA udaltxean sartu zenetik beraien lehen tasuna, eta honen inguruan ari dira arau berriak prestatzen, baina inork ez daki nondik norako asmoak dituzten, gai honen inguruko informazioa ezkutuz ari baitira. Uztatik ez dugu lortu inongo datirik, nahiz eta 842 ibararren ordezkaritza izan.

Nork agintzen du guri informazioirik ez ematea? Arau hauen aldaketan atzetik milioi askotako interes ekonomikoak daude, batez ere biberotako lurretan eraikitzen hasiko diren ustetan, eta agian honek azalduko luke, besteak beste, informazioa ezkutatzeko gain Uztak Udalen duen ordezkaritzari bideak irekitzeko duten borondatea falta.

UZTAK ZINEGOTZI TALDEA ▶ IBARRA

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

Alegia. Etxebizitza berriak 2 eta 3 logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.
Alto. Etxebizitza ugari alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.
Andoain. 90 m²-ko etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua.
Berrobi. Hiru logelako etxebizitza salgai, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Cintruenigo (Nafarroa). Hiru logelako etxebizitza salgai; bi solairu, altzariz

hornitua, txokoa, erretegia, piszina, sukaldea eta bainugela eta Kanpokaldera begira. 18.000.000 pta. Mandio 669 87 19 09.
Corella. Bi familientzako etxe abikia, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Portxearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukaldez hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m²-ko terenoarekin. Piszina eta guzti. Eta gainera, batzuk bimeneta dotorea. 13.500.000 pezeta. Mandio 669 87 19 09.
Goierri. Bi familientzako etxe abikia, eraikuntza berrikoa. Mandio.
Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoak. 31.500.000 pta.
Ibarra. Zaldune auzoan bi logelako etxebizitza salgai; altzariz hornitutako sukaldea, kanpokaldera begira,

trastelekuarekin eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Ibarra. Argindegi auzoan 3 logelako etxebizitza, berogailuarekin eta altzariz guztiz hornitua. 27.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.
Ibarra. Maestro Guridin, etxebizitza salgai; bi logelako eta kanpokaldera begira; sukaldea altzariz hornitua. Mandio. 669 87 19 09.
Legorreta. Etxebizitza salgai, 3 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Lursaila. 10.000 m²-ko lursaila salgai nekazaritzarako. Mandio 669 87 19 09.
Ordizia. Urdaneta kalean 67 m²-ko etxebizitza, 2 logela, egongela handia, bainugela eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Larramendi kalean 65 m²-ko etxebizitza salgai. Sukaldea altzariez hornitua, kanpokaldera begira, 2 logela, igogailua eta trastelekuak. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Santa Klaran 111 m²-ko etxebizitza salgai: 4 logela, egongela handia 25 m²-koa eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Araba etorbidean 97 m²-ko etxebizitza salgai, bizitzera sartzeko, balkoi handia eta garaje marrearekin. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Bidebieten etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Korreo kalean, 70 m²-ko duplexa salgai; 15 m²-ko terrazarekin, teilatu berrieta eta berogailuarekin. 26.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Hiru solairuko baserria salgai, 500 m²-koa bakoitza, nekazaritzarako 10.000 m²-ko lursailak ditu. 669 87 19 09.
Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.
Txarama. 100 m²-ko etxebizitza salgai; hiru logela eta altzariz hornitutako sukaldea. Bizitzera sartzeko prest. 669 87 19 09.

LOKALAK

Goierri. Erretegia ingurune naturalean. Terrazarekin eta bezero finkekin salgai. Prezio interesgarrian. 669 87 19 09.
Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09.
Tolosa. 428 m²-ko pabilioi berria salgai, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbidea ondoan. Mandio. 669 87 19 09.

LEITZA ▶ UDALA

Irusu etxearen enkanteko prozedura bukatu da jada

Hemendik aurrera jabego partikularra izanen du Leitzelarreko etxe honek

JAIONE ASTIBIA

Irusu etxea herri ondasuna, enkantean saltzea erabaki eta, lehengo ostiralean burututako udal batzarrean bukatutzat jo zen prozedura, bere jabegoa, enkantean eskaintzarik hobereena, eta bakarra, izan zen Fran Hernandorena Erbiti leitzarrari behin betikoz esleitu ondoren.

Leitzelarreko errepeidean dagoen etxe hau, herriaren jabegokoa zen. Bere garaian, hain zuzen ere Leitzelarreko errepeidearen mantenimenduaz arduratuko zen udal langilea bertan bizi zedin eraikitakoa da. Geroztik, ostatu-jatetxea ere egon izan da bertan, urte batzutan zehar. Baina azken hiru-lau urtetan hutsik zegoen.

Orain, Udalak enkantera atera eta saldu egin du, aurtengo aurrekontuak onartu zituzteanean hartutako akordioaren arabera, Patxi Arrazola auzoko urbanizazio eta zolaberritze lanen zati bat finantzatzeko.

Salmenta hau enkante bidez egin da, herri ondasunen sal-



Leitzelarreko errepeidean dago Irusu, izen bereko mendiaren hegalean, eguzki sarrerari begira. J. ASTIBIA

mentei dagokien moduan eta horren oinarriak, uztailearen 2ko udal batzarrean onartu zituzten. Kasu honetan, eskaintzak, gutunazal itxitan egin behar ziren, NAOn argitaratutako egunetik, irailaren 18tik aurrera, beti ere 198.000 euroko esleipen prezioetik gorako eskain-

tzak eginez. Hil honen 13a izan zen eskaintzak egiteko azken eguna eta lagun batek bakarrik aurkeztu omen zuen proposamena. Berau 228.384,60 eurokoa izan zen, lehengo 38 milioi pezeta, batzarrean jakitera eman zenez; enkantera atera zen prezioa baino %15

gehiago. Behin eskaintza honek, beste inork eskaintza horerik egin gabe, *seste*eko epea gaudituz zuelarik, esan bezala, leitzar gazte horri esleitu zioten behin betiko, Irusu.

Etxearen gainkaldean dagoen belatsoak, herri lurra izaten jarraitzen du.



Noizean behin izaten dira!

LEITZA ▶ Kilo eta ehun gramo pisatu zituen eta 80 zentimetroko buelta zuen zapelak. Ederra onddoa! Lehengo larunbatean, lagun bati egurra egiten laguntzera joan eta ustekabean aurkitu omen zuten, baso bazterrean, istor tartean tente asko. Inguruan beste hiru-lau ale ere bai omen zeuden, baina tikiagoak. Jose Luis Astibia lagunak gonbidatzeko gaia badu, zalantzarik gabe. On egin! JAIONE ASTIBIA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Betelurekin hitzarmena egiteko eskaera egin da

Zahar etxe hartako zerbitzuez baliatu ahal izateko, aurrena hori sinatu behar omen da

J. ASTIBIA

Leitzako Udalak, hil honen 24an hartutako akordioaren arabera, eskaera egin dio Nafarroako Gobernuari, AMMA Betelu, Beteluko zahar etxe eta eguneko zentroarekin lehenbailehen hitzarmen ekonomikoak sinatu dezan, zentro horrek «dauzkan aukerabide guztiak erabat garatzea, hirugarren adinekoen bizi kalitatea hobetzeko asmoz», helburu izanik. Gai horretaz aritzeko, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuko kontseilariarekin elkartzeko eskaera ere egin zuten, eskualdeko udal-tako ordezkariarentzat.

AMMA Betelu zahar etxea, aurtengo ekainaren bukaeran

ireki zuten Betelun, Nafarroako Gerontologia Planak eskualde honetarako guztirako ezarri zuenaren arabera, zonalderako aurreikusita zeuden plaza kopuruari zerbitzua emateko gaitasunarekin.

Baina bertako adinduek, behar izanez gero, edota bertakoak izanik, eskualdetik kanpoko beste zentrotan ingresatuta daudenek, zerbitzu honetaz baliatzeko erraztasunak izan ditzaten, zentroa ku-deatzen duen enpresarekin hitzarmen ekonomikoak egin behar omen du lehendabizi Nafarroako Gobernu dago-kion sailak, beti ere plaza kopuru jakinekiko. Behin hori sinatuta, plaza hauek eskuragarriago izanen omen lirarteke.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion Klinikak 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttipa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Iturrioz, Euskal Herria, 3, (Ibarra). 943 67 09 15.

Plaza, M., Elbarren, 36, (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Autoa salgai. Ford

Mondeo. Bi urte. 11.000 euro.

Tfnua.: 635 75 19 72.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko irailaren 30a, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Albitur, Aingia, Aizoa, Alzo, Ametsleta, Anxeta, Balaran, Belauntza, Berastegi, Edoain, Herribide, Ibarra, Iruja, Leizola, Leizotz, Licartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zaurki.

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurerria
Kultura Saila

Eusko Jaurerria
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez
arratsaldez

bercoena

22

hotzera

16

BHARKO
EGURALDIA

goizez
arratsaldez

22

hotzera

16

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Odola emateko aukera 18:30etik 20:30era balioanitzeko gelan.

Bidegoian.

Drogomenpekotasunaren prebentzioa familian hitzaldia eskainiko du Txus Kongil adituak Kultur Astea dela-eta.

Tolosa. Yoga elkarteak antolatuta, Kontzientzia Globalari buruzko jardunaldietan, Giza jarrerak hitzaldia, Javier Azpiri Kalki bioespinologoa eta yoga irakaslearen eskutik. Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. Tolosa Bizirik herri ekimenaren batzar irekia 20:00etan udaletxeko batzar aretoan.

KILOMETROAK 04

Amezketak. Gazte Taldeak antolatu du Zarautz-Orioko Kilometroetara joateko autobusa. Izen-ematea herriko tabernetan. Irteera 09:00etan plazaatik.

Ibarra. Gazte Asanbladak antolatuta. Zubiaurre eta Denak tabernetan eman behar da izena.

Tolosa. Galtzaundik antolatu du. Izen-ematea bertan 18:00etatik 20:00etara (943 65 50 04) 9 eurotan (bazkideek 6). Irteera zezen-plazaatik 09:00etan.

MUSIKA

Iruja. Play-back bihar 22:30ean frontoian eta Izotz 24:15ean plazan.

Tolosa. Obligaciones eta Captain Nemo. Bihar 22:30ean Bonberenean.

Tolosa. Oskorri. Bihar 22:30ean Leidorren.

Villabona. Donostiako Akordeoi Orkestra Sinfonikoa. Bihar 22:30ean Gurea zineman.

Aukeratu euskarazko prentsa!

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ HITZAko harpidedunek eskaintza berezia dute: 'Berria'-ko harpidetza merkeago eta hilabetez doan jasotzeko aukera



Berria eta HITZA egunkariak hitzarmen bat egin dute HITZAko harpidedunei eskaintza berezi hau egiteko. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko berriak euskaraz, Euskal Herriko eta mundu zabaleko berriak ere euskaraz. Horixe da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK martxan jarri duen eskaintza berria. Euskarazko prentsa sustatu nahian, Berria egunkariaren harpidetza merkeagoa egiteko aukera ematen die bere harpidedunei.

Egun hauetan ari dira buzoineatzen HITZAko harpidudun etxeetan eskaintza honi buruzko informazioa ematen duen inprimakia. Aukera paregabe honen bidez, HITZAren harpidedunek hilabete batez Berria doan jaso ahal izango dute. Etxean informazioa jaso ondoren, telefonoz deituko dute harpidedunen etxeetara, eskaintzan interesatuta dauden ala ez jakiteko. Hilabete osoan zehar irarango du kanpaina honek,

beraz, harpidedunek urriaren amaiera arte izango dute aprobetxatzeko aukera.

Kanpaina hau Tolosaldeko herri batzuetan hasi da egun hauetan, eta piskanaka Tolosalde eta Leitzalde osora zabalduko da. HITZAko harpide izateagatik beste abantail bat dute.

Berria egunkariaren harpidudun izateak baditu bere abantailak. Etxeko buzoian iratsoz gain, kioskoan baino

merkeagoa da eta hainbat promozio eta zozketatan parte hartzeko aukera ematen dio irakurleari.

Bi komunikabideak —HITZA eta Berria— norabide berean ari dira elkarlanean. Euskararen normalizazioan. Herri informazioaz gain, Euskal Herri osoko eta mundu zabaleko informazioa euskaraz jasotzeko ahalegin berezia egiten ari dira kanpaina honen bidez. Aprobetxatu aukera!

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Aritz Aierza (Tolosa).
Gaur 2 urte. Zorionak Asier eta ebekoen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!